

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure bezeroekin harremantzeko hainbat baliabide erabiliko ditugu, bai baliabide fisikoak zein teknologikoak.

Alde batetik, gure lokalean zerbitzariak emango duten tratua ezin hobe izango da, izan ere, **errespetua eta alaitasuna** gure lokalaren esentzia izatea da helburu. Gainera, gazteen iritzia indarra emateko eta haien **proposamenei** so egiteko, proposamen-orriak jarriko ditugu bezero guztien eskura. Hemen, haien eskaerak jartzeko aukera izango dute, entzun nahi dituzten hitzaldiak eta kontzertuak, kontsumitu nahi dituzten produktuak, ekintzak desberdinak...

Beste alde batetik, **sare sozialei** ere garrantzi handia emango diegu bezeroekin kontaktuan jartzeko orduan; **Instagram, Tik tok eta Twitter**. Horien bitartez, gure enpresak eskainiko dituen produktu, zerbitzu, ekitaldi eta abarren inguruko informazioa helaraziko dugu, bezeroekin une oro harremanetan mantentzeko. Horretaz gain, sare sozialak bezeroen proposamenak jasotzeko erabiliko ditugu, *Instagram-eko* inkesten bitartez adibidez. Azkenik, bertako influencer-en bitartez gure enpresa publizitatuko dugu, modu honetan, publiko gazteena erakarriz.

